

## SAATS KARASATORRE MARTINEZ

# «Zentzu bat ikusten diot proiektuari berari eta horrek motibatzen nau»

**E**txarri Aranatzzen jaio zen, 1992an. 2017an hartu zuen parte aurreneko txapelketan eta 2019an finalerdietaraino iritsi zen. Aurtengo finalista berrietako bat da. Joxema Leitzarekin hasi zen bertsoan umea zela, Eneko Lazkoz eta bertze hainbat sakanar bezala. «Bera ibili zen gure atzetik, ekarpen handia egin zion bai bertso munduari eta bai euskal munduari», azpimarratu du. Orain, erronka hartu du Saats Karasatorrek ere, bertso irakasle izateaz gain, eskualdeko bertsolari kideekin batera eragile aritzeko. «Gauzak antolatzen ari gara, proiektutxo bat daukagu eta parte izateak bultzatu nau bertsoa berrartzera, urte batzuetan utzita ibili ondotik».

Motibatuta dago bertso munduko jendearen babesarekin ere. «Saretze bat dago eta txapelketan indar berezia hartzen du. Ederra da hori sentitzea eta asko ikasten ari naiz entrenamenduetan, besteek gai bati nola kantatzen dioten entzuten eta komentatzen».

Bere izena finalista posiblen zerrendan zen Lesakako saiorako. Halere, puntuak eman zituztenean urduri egon zen frontoiko entzuleen artean. Lazkoz laguna du, herrikidea, eta eskertuko du ohol-tzakide izatea. Josu Sanjurjo lankidea du eta bertze finalista ere hurbilekoak.

### Zer asmo eta sentipen dituzu finalera begira?

Badaukat gogo, urduritasuna ere bai. Lanketa emozionala egin behar dut, urduritasuna eta aldarte kudeatze aldera.

Lagun batek aholkatu zidan txapelketa aurreko asteak lasaigo hartzen saiatzeko, eta hori egiten saiatuko naiz. Bertso eskolan jarraituko dut, bertso kideekin elkartzen... bizi-tzen ere bai [irri egiten du]: basora joan, haurrarekin egon, erosketak egin... Eguneroko martxak laguntzen du. Bertso irakasle nabil, eta bultzadaxoa izan da hori, bertsoaldi asko entzuten ditudalako, gus-tuko dudalako, baina lanagatik ere bai.

### Nola bizi izan duzu txapelketa hau eta nola ikusi dituzu kideak?

Bertso maila oneko txapelketa ikusten ari gara. Leitzan nire akatsetan ito nintzen eta horrek ez zidan utzi besteena aditzen ere. Gero ikusi dut ez nuela hain gaizki egin. Aldiz,

Altsasuko saioan aldarte onez egon nintzen eta gaietan ere asmatu nuen nola kokatu. Hortik etorri zaizkit landu beharko nituzkeen gauza batzuk. Lagun batek esan zidan berak bi Saats ikusi dituela, Leitzakoa eta Altsasukoa, eta dena emozionala dela uste dut. Bertso oinarri bat badauk, bertsoan egiten badakit, emozioen kudeaketa hori da landu behar dudana.

### Zer diozu gaiez eta giroaz?

Tokatu zaizkidan gaiekin eroso kantatu dut. Uste dut oso zaila dela oreka mantentzea hainbeste gai prestatu behar dituzunean. Altsasun kristoren bero giroa iruditu zitzaidan, leku atsegina zen, etxe ondoan, lagunak eta familia-koak han ziren. Leitzan akaso hotzago zegoen, baina ongi.

### Zein ariketarekin gelditu zinen gusturen eta zeinekin disgustura?

Hamarreko ttikian ongi egin izanaren sentsazioa nuen, baina gero puntuetan ez zen hala izan. Oso lotuta, urduri nengoen. Puntu erantzun onak bota nituen, eta puntuetan islatu zen. Ganbaran ere bertso onak kantatu nituela uste dut, gaiari ongi heldu nion, zerbait berria ekarriko ote nuen pentsatu nuen, baina doinuarekin nahasi nintzen. Hortik ere ikasten da. Ongiegi kontrolatzen ez dudan doinu batekin ausartu izanak ekarri zidan hori.

### Nola ikusten duzu harrobia?

Aurten bereziki txapelketak haur pila bat engantxatu ditu. Ez da harritzekoa, haurrak orokorrean ohituta daude lehiara, izan pilota edo futbola, beren egunerokoan badago lehia, eta oso engantxatuta ikusten ditut, astero galdetzen didate, edo klasera sartzen naizenerako badakite. Orain arte ez dira inguru bereziki bertsozale batean bizi izan diren haurrak, eta ederra da.

Sakanan bi bertso eskola daude, Etxarrin ez dago orain, baina urtarrilean beste saiakera bat egingo dugu. Sakanan bada gaztetxo talde bat bertsoarekiko lotura bat daukana, batzuk oso gogotsu ikusten ditut kantatzeko, jendaurrean ere bai. Bertsoak badauka zerbait kuriosoa, engantxatzen dituelako haurrak euskaraz sorkuntza lan bat egitera inongo baliabide materialik gabe. Pantailak erabiltzen ez ditugunean ere funtzionatzen du bertsoak, jolasetik engantxatzen ditu; guk ere hala hartu beharko genuke. Zentzu bat ikusten diot proiektuari berari eta horrek motibatzen nau.

